# Lau Haizetara

ALDIZKARIA — Enero de 2011 — Zenb.:4 — Zigoitiko Ezker Abertzalea


## PRESUPUESTO 2011

**El pasado 30 de Diciembre se debatió la aprobación inicial del presupuesto para 2011 con el siguiente resultado: 5 votos a favor de Sarragoa (2), EA, PSOE y PP y 4 votos en contra, de la Izquierda Abertzale (2) y PNV (2)**.

Los concejales de la Izquierda Abertzale de Zigoitia, tras analizar el presupuesto presentado por la Alcaldía para el año 2011 y analizar el cumplimiento del presupuesto del año 2010, **hemos tomado la decisión de no apoyar la aprobación del presupuesto para 2011 entre otras por las siguientes razones:**

DINEROS PÚBLICOS

### GASTOS EN ÓRGANOS POLÍTICOS:
### SUELDOS, ASIGNACIONES A CONCEJALES Y GRUPOS POLÍTICOS.

A nuestro parecer lo que viene sucediendo en Zigoitia en esta última legislatura en relación a la percepción de sueldos e indemnizaciones por parte de los concejales de esta Corporación y en especial por el equipo de Gobierno está siendo un **abuso hacia la totalidad de los vecinos**.

En un municipio pequeño como es Zigoitia, se ha llegado a una "profesionalización" de la política desconocida hasta hace poco en municipios de similar tamaño. Se está destinando más dinero público a pagar los sueldos de la Alcaldía que en muchas capitales de provincia del estado español.

Para el año 2011 se presupuesta un gasto de **81.651,32 €** para pagar los sueldos y la seguridad social de la Alcaldía y del Concejal Delegado de Urbanismo, en anteriores presupuestos las cantidades han sido similares.

Desde la Izquierda Abertzale en repetidas ocasiones hemos propuesto la **reducción de todas las percepciones de todos los grupos políticos y concejales al 50%**, ningún otro grupo político ha respaldado esta propuesta.



Fuente: El Correo

Con esta reducción en estos últimos cuatro años se hubiera recortado el gasto en órganos políticos en aproximadamente 300.000 €. Con ese dinero se podrían haber acometido diferentes inversiones por parte del Ayuntamiento o de las Juntas Administrativas. Sin lugar a dudas una cantidad bien necesaria vista la **actual situación de crisis económica y social en la que nos encontramos inmersos**.

### INVERSIONES Y VENTA DE PATRIMONIO MUNICIPAL.

La mayoría de los Ingresos Corrientes están dedicados a sufragar los Gastos Ordinarios, de manera que **las inversiones están condicionadas a la venta de patrimonio municipal**.

Se presupuestan inversiones por un total de **479.761,80 €** y una venta de patrimonio municipal valorada en **407.185,25 €** para hacer frente a esas inversiones. Si el Ayuntamiento se desprende de su patrimonio a este ritmo en pocos años no se podrían abordar futuras inversiones **dejando hipotecadas a futuras corporaciones y lo que es peor a la propia Institución.**

Desgraciadamente, a día de hoy no existe ninguna planificación eficaz para darle la vuelta a esta situación.



En Zigoitia se han gastado 26.000€ (sin subvención) en este panel,. En otros municipios ha sido subvencionado el 80%.

# Lau Haizetara

ALDIZKARIA 2011ko urtarrila Zenb.: 4 Zigoitiko Ezker Abertzalea




## 2011KO AURREKONTUA

**Pasa den Abenduaren 30ean, 2011rako aurrekontuen hasiera bateko onespena eztabaidatu zen. Hau da ateratako emaitza: Alde 5 bozka, Sarragoa (2), EA, PSOE eta PP; kontra 4 bozka, Ezker Abertzalea (2) eta PNV (2)**.

Zigoitiko Ezker Abertzaleko zinegotziok, Alkatetzak 2011rako aurkeztu duen aurrekontua eta 2010eko aurrekontuaren betetzea aztertu ondoren, **2011rako aurrekontuaren onarpena ez babesteko erabakia hartu dugu, beste batzuen artean, jarraian azaltzen diren arrazoiengatik**:

DIRU PUBLIKOAK

### ORGANO POLITIKOETAKO GASTUAK:
### SOLDATAK, ZINEGOTZI ETA ALDERDI POLITIKOEI EMANDAKO KIRU-KOPURUAK.

Gure iritziz, azken legegintzaldian Zigoitian Udalbatzako zinegotziak eta batez ere Gobernu taldeko kideak jasotzen ari diren soldata eta kalte-ordainekin gertatzen ari dena **bizilagun guztiekiko gehiegikeria hutsa da.**

Zigoitia bezalako udalerri txiki batean, orain gutxi arte antzeko tamainako udalerrietan ezagutzen ez zen bezalako politikaren "profesionalizazio" mailara heldu gara. Alkatetzako soldatak ordaintzeko, estatu espainiarreko probintzia hiriburu askotan baino diru publiko gehiago zuzentzen ari da.

2011. urterako, Alkatetzaren eta Hirigintzako Zinegotziaren soldatak eta gizarte-segurantza ordaintzeko, **81.651,32 €**-ko gastua sartu da aurrekontuan, eta aurreko aurrekontuetan kopuruak antzekoak izan dira.

Ezker Abertzaletik hainbat aldiz proposatu dugu **talde politiko eta zinegotzi guztiek jasotzen dituzten soldata eta bestelako diru-kopuruen %50eko murrizketa**, baina proposamen hau ez du beste inolako talde politikok babestu.

Murrizketa honen bitartez, azken lau urte hauetan **organo politikoetako gastuak 300.000 eurotan gutxituko ziratekeen**. Diru horrekin inbertsio ezberdinak burutu zitezkeen, bai Udalaren edo Administrazio-Batzarren eskutik. Dudarik gabe, **egun murgilduta gauden gizarte-krisia eta krisi ekonomikoa kontuan hartuta**, oso beharrezkoa zen diru-kopurua.

### INBERTSIOAK ETA UDAL-ONDAREAREN SALMENTA

Ohiko Diru-sarrera gehienak Eguneroko Gastuak ordaintzera zuzenduak daude, eta beraz **inbertsioak udal-ondarearen salmentaren menpe gelditzen dira**.

**479.761,80 €**-ko balioa duten inbertsioak sartzen dira aurrekontuan, eta inbertsio horiei aurre egiteko, **407.185,25 €**-tan baloratutako udal-ondarearen salmenta. Udala abiadura honetan gelditzen bada ondarerik gabe, urte gutxitan ezingo da inber-tsiorik egin, **ondoren datozen udalbatzak, eta are okerrago dena, Erakundea bera, mugimendu gaitasunik gabe eta erabat hipotekatuta utziz**.




Zoritxarrez, gaurko egunez ez dago inolako planifikazio eraginkorrik egoera honi buelta emateko.

## REDUCCIÓN DE CONTRATACIÓN DE EMPRESAS EXTERNAS EN FAVOR DE PERSONAL LABORAL MUNICIPAL

Otra de las reivindicaciones de la Izquierda Abertzale es la reducción de las contrataciones de servicios públicos a través de empresas externas y **potenciar la creación de plazas laborales en los que ya son puestos estructurales**, como son los relacionados con la limpieza de edificios municipales o el de conserjería del Centro Socio-cultural.

En este presupuesto no vemos reflejado en absoluto lo que puede ser un cambio en el modelo de contratación de servicios municipales.

Parece ser que sólo se ofertan los puestos de administración, dejando el resto de puestos de trabajo para que sean explotados para el beneficio de empresas privadas.

**Este presupuesto apuesta claramente por la precariedad laboral**.




## INCUMPLIMIENTO DE PRESUPUESTOS ANTERIORES

El presupuesto es una herramienta imprescindible para un Ayuntamiento, así como lo es para sus vecinos el cumplimiento del mismo.

Desgraciadamente **ha sido habitual el incumplimiento del presupuesto en años precedentes**. En lo referente a este año que está a punto de finalizar sólo haremos mención a 2 de las partidas más importantes que se han quedado sin ejecutar:

- **Reforma del Parque Bengolarra (150.000 €)** y para la cual la Diputación había concedido una subvención de 40.000 €.

  En los actuales momentos de crisis no deja de parecernos un lujo el **rechazar subvenciones concedidas a obras presupuestadas** mientras se gasta dinero en otras que no han contado con ayudas públicas.

- **Reparto del Plan de Financiación Local 2010 (171.782 €)** entre las Juntas Administrativas del municipio.

Los concejos de Zigoitia han dejado de percibir **una cantidad que estaba aprobada** y que tan necesaria es para que desde los pueblos realicen sus inversiones.

El presupuesto de 2010 fue exclusivamente realizado y aprobado por Sarragoa y Eusko Alkartasuna y a estos grupos políticos les preguntamos ¿por qué incumplen sus propios presupuestos? ¿Cuál es su juego?



## PARTICIPACIÓN CIUDADANA

Nuevamente este año no se han ofrecido las herramientas necesarias a la población para que pueda tomar parte en unos **presupuestos realmente participativos y decisorios**.

Sí se ha explicado cómo es el procedimiento, pero **no se han habilitado los cauces** para tomar parte en ellos de forma real.

La encuesta ha ido enfocada a obtener una valoración sobre la gestión municipal de Sarragoa más que a obtener una información real. Esta encuesta debería haber ido enfocada a recoger las necesidades. Por ello no es extraño que el nivel de participación y de respuesta se haya reducido en un 50%, siendo tan sólo 18 personas, o sea, el 1% de la población quien la ha respondido.

**Es necesario fomentar una participación real, plural** en la que se genere debate y se hable de cifras concretas sobre las que se puedan decidir y que se puedan ver plasmadas definitivamente en el presupuesto.

## FALTA DE PREVISIÓN EN INVERSIONES

- Falta de previsión para dedicar partidas especificas para **adecuar el uso de los edificios liberados** recientemente: **Bengolarra** (accesibilidad al edificio y necesidad de duchas, baños y vestuarios en condiciones) y **Antiguo Ayuntamiento** (accesibilidad para poder dar un uso integral al edificio).
- Falta de dedicación de partidas concretas para **desarrollar el proyecto del polideportivo**, dejando de lado de una vez por todas las partidas decorativas de 1€.
- Falta de desarrollo del **proyecto de la vía verde (cañada real)** para la unión de Gopegi y Ondategi con Larrinoa y Murua, que en anteriores presupuestos ya estaba incluida.
- Falta de partidas necesarias para finalizar el **soterramiento del cableado del parque de Bengolarra**.

## ENPLEGU ESKAINTZA

### KANPOKO ENPRESEN KONTRATAZIOAREN MURRIZKETA, UDALEKO LANGILEEN MESEDETAN

Ezker Abertzalearen beste aldarrikapenetako bat zerbitzu publikoetarako kanpoko enpresen kontratazioaren murrizketa bat ematea da, **egiturazkoak diren postuetan**, hala nola, udal-eraikuntzen garbiketarekin edo Gizarte-Etxeko atezaintzarekin lotura dutenetan, **lanpostuen sorrera indartuz**.

Aurrekontu honetan ez dugu inola ere islatua ikusten udal-zerbitzuen kontratazio ereduan aldaketa bat izan daitekeen ezer.

Dirudienez, soilik administrazioko postuak eskaintzen dira, gainerako lanpostu guztiak enpresa pribatuek beren onurarako ustiatu ditzaten utziz.

**Aurrekontu honek apustu garbia egiten du enplegu-prekarietatearen alde.**

## UDAL KUDEAKETA

### BESTE URTE BATZUETAKO AURREKONTUAK EZ BETETZEA

Aurrekontua ezinbesteko lanabesa da Udal batentzat, bertako biztanleentzat berau betetzea den bezala.

Zoritxarrez, aurrekontua ez betetzea ohiko gauza izan da azken urteetan. Amaitu berri den urte honi dagokionez, soilik aurrera eraman gabe gelditu diren bi aurrekontu-sail garrantzitsuenetakori egingo diegu erreferentzia:

• **Bengolarra Parkearen erreforma (150.000 €)**. Foru Aldundiak 40.000 €-ko diru-laguntza onartua zeukan.

Krisian gauden garai hauetan, luxu bat iruditzen zaigu aurrekontuaren barnean egonik, **diru-laguntza onartua duten eraikuntza-lanei uko egitea**, laguntza publikorik jaso ez duten beste proiektu batzuekin dirua gastatzen den bitartean.

• **2010eko Finantziazio Lokaleko Planaren banaketa (171.782 €)** udalerriko Administrazio-Batzarren artean.

Zigoitiko kontzejuek **onartuta zegoen kantitate bat** jasotzeari utzi diote, herriek beren inbertsioak burutzeko hain beharrezkoa dena.

2010eko aurrekontua Sarragoak eta Eusko Alkartasunak bakarrik burutu eta onartu zuten, eta talde politiko hauei galdetzen diegu: zergatik ez dituzte betetzen beren aurrekontuak? Zertan ari dira?



### HERRITARREN PARTE HARTZEA

**Beste urte batez, aurten ere ez zaizkio biztanleriari benetan parte-hartzaile eta erabakitzaileak izan zitezkeen aurrekontuetan** parte hartu ahal izateko erremintak eskaini.

Bai, egia da azaldu egin dela nolakoa den prozedura, baina ez dira aurrekontuetan modu erreal batean **parte hartzeko erak bideratu**.

Galdeketa bereziki Sarragoaren udal-kudeaketaren balorazio bat jasotzera zuzendua egon da, informazio erreal bat lortzera baino, eta helburua beharrak zeintzuk diren jasotzera zuzendua egon behar zatekeen. Horregatik, ez da harritzeko parte-hartze eta erantzute maila %50 batean murriztu izana, soilik 18 pertsona izan direlarik, hau da, biztanleriaren %1, erantzuna eman dutenak.

**Beharrezkoa da benetako parte-hartze plural bat sustatzea**, eztabaida eraikitzailea sortuz eta erabaki daitezkeen eta gero aurrekontuetan islatuta ikus daitezkeen zifra zehatzez hitz eginez.

### AURREIKUSPEN FALTA INBERTSIOETAN

• Aurreikuspen falta orain gutxi **libre gelditu diren eraikuntzak egokitzeko** aurrekontu-sail espezifikoak bideratzeko orduan: Bengolarra (eraikuntzarako sarrerak eta egoera onean dauden dutxa, komun eta aldagelen beharra) eta Udaletxe Zaharra (sartzeko erraztasuna, eraikuntzari osotasunezko erabilpen bat eman ahal izateko).

• **Polikiroldegiaren proiektua** aurrera eramateko aurrekontu-sail zehatzak ez bideratzea. Alde batera utzi behar dira behin-betiko euro bateko partida dekoratiboak.

• Gopegi eta Ondategi Larrinoa eta Muruarekin lotzeko **bide berdearen (abelbidearen) proiektua**ren garapen falta, lehenago aurrekontuetan hitzartua zegoena.

• **Bengolarrako parkearen kable-sarearen lurperatzea** amaitzeko aurrekontu-sailen falta.